

Beroaldi globalak badu klase sozialen berri: txiroak kiskali estreina



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

2018ko uda beroarekin ipar hemisferio osoak hurbilagotik ezagutu du klimaren aldaketa. Tifoien edo uholdeen zalapartarik gabe, haiek bezain suntsitzaile gerta daitezke beroaldi handiak. Beste gauza gehienetan bezala, ordea, beroaren eraso ez dute berdin nozituko hotza eskuratu dezaketenek eta freskatzeko modurik ez dutenek. Aire egokitua behar duten hirietan, gero eta hiritarragoa den gizadiaren barruan, jende eta auzo txiro eta bakartuenak dira galdaren lege egosteko arriskuan.

2018. urtea markatuta geratuko da historiako orain arteko beroenen artean. Termometroek errekorrak hautsi dituzte denetan uztail eta abuztuan. Urtzen ari diren glaziarren, sututako oihan nordikoen eta Australiako errepideetan bezala eguzkiak urtutako asfaltoaren irudi txundigarrietatik harago, *The Guardian* egunkariak kronika eta analisi sorta eskaini die beroaldien ugaritzeak munduko hirietan dagoeneko eragin dituzten ondorioei.

“*Ura irakiteko erdi bidean: hiria 50 °C-tan*”, idatzi dute Jonathan Watts eta Elle Hunt. Imajinatu zer bizimodu eduki behar duen hiri batek tenperatura horretan. Kaleak bezala parkeak hutsik, inor ez da ausartzen irtetera eguzkia gora denean, arratsean hasten dira herritarrak agertzen, bero egin arren ilunak pittin bat baretutakoan...

Eskoletako patioak isilik, ikasleak barruan zerraturik, ordurik beroenetan debekatuta dago kanpoan lanean ari-tzea. “Ageri diren jende bakarrak dira aire giroturik ez daukatenak, sargoriari ihes egin ezin diotenak: txiroak, etxerik gabeak, paper bako langileak. Gizartea banatuta dago freskura daukatenen eta ez daukatenen artean”.

Oraindik asko ez dela 50°C-ak anomaliatza hartzen ziren arren, gero eta sarriago ari gara ikusten munduan. Aurtengo udaberrian bertan Pakistango Nawabshahn bizi diren milioitik gora jendeei tokatu zaie bizitzea munduak gaur arte gogoan duen apiriliko beroena:

termometroak 50,2°C-tara iritsi dira. Bi urte lehenago Indiako Phalodi hirian harrapatu zituzten 51°C.

Pertsiar Golkoko anitz hiritan ohitzen ari dira galdara giro horretara. Irakeko Basrako 2,1 milioi biztanleek badakite zer den termometroek 53,9°C markatzea. Omango kostan Quriyaten uda honetako gau batez sargoria ez zen 42,6°C-tik jaitsi, munduan inoiz neurtu den gutxieneko altuena. Mekan, urtero bi milioi erromesek bisitatzen duten hiri santuan, 51,3°C harrapatu zituzten 2012an eta luze baino lehen ikusiko dute marka nola hausten den. Mundu aberatsean, Kaliforniako Palm Beach eta Chinon ia-ia iritsi ziren.

50°C-tako kopuru hori urak irakiten duen tenperaturaren erdia baino zerbait gehiago da: bizimodu txukun baten muga ere bada. Tenperatura horretan gizakiari zelulak egosten hasten zaizkio, odola loditzen, biriken inguruko gi-harrak estutzen, burua oxigenoz betetzen. Pertsonari toxikoa zaio bere gorputza ohiko tenperatura baino hamar gradutan eduki beharra. Inguru lehorretan izerditzeak lagunduko dio estresa baretzen, baina beroari hezetasuna gehitukoan babes hori ere falta du.

Zientzialariak ari dira ohartarazten aurtengoa bezalako muturreko beroaldiak gero eta ohikoagoak izanen direla India, Pakistan, Asia ekialde eta Txinako eremu askotan. Are gehiago, 2100. urterako munduko biztanleen erdiak urtean gutxienez 20 egunez bizi beharko omen



du muturreko tenperatura itogarrien pean baita negutegi eragineko gasen isurketa modurik baikorrenean mugatzea lortuta ere. Pentsa CO2 isurketak aski mugatzen ez badira...

Kontua da normaltasun berriaren ondorioak ez dituztela mundutar guztiek berdin nozituko: bai herrialde txiroenei eta baita herrialde bakoitzaren barruko behartsuenei askoz latzagoa izango zaie. Gaur bertan ere beroak ondo bereizten ditu klase sozialak.

Hiriak labe erraldoi bihurturik

The Guardian-ek beroaldiari eskainitako seriearen barruan, egunkariaren sei korrespontsalen artean idatzi dute “*Beroa, berdintasunik ezaren hurrengo gatazka*”. Honela hasten da: “Uztailean bero kolpea nagusitu zenean Kanadako Quebecen, aste bakar batean 90 pertsonatik gora hilez, eguzki goriak argitara ateratu zituen gordinki aberatsen eta txiroen arteko ezberdintasunak”.

Izan ere, Montreal hirian eroso bizi diren jendeak aire egokituz freskatutako bulego eta etxebizitzetan babesten ziren bitartean, etxerik gabekoek senperrenak egin behar zituzten beroaren hatzaparrei ihes egiteko. 54 herritar hil ditu uda honetako beroak Montrealen eta osasun zerbitzuek zehaztu ez duten arren horietatik zenbat ziren etxerik gabeak, bai jakin da hildako gehienek 50 urte baino gehiago zituztela, bakarrik bizi zirela eta aurretik zekartzatela osasun arazo fisiko edo mentalak. Sargoria-



Xinhua agentziak banatutako argazkian, herritarrek saiatzeko dira beren buruak freskatzeko Bagdad hiriko erdigunean agintariak ipinitako iturrietako batean. Antzeko irudiak errepikatu dira 2018ko udan munduko hiri askotan, baita ipar aberatseko batzuetan ere. 2100. urterako gutxienez gizadiaren erdiak nozitu beharko ditu urtean 20 egun muturreko tenperaturekin.

ren biktimetatik bakar batek ez zeukan aire egokiturik.

Klase ezberdintasuna eta beroarekiko zaugarritasuna antzeko moduan gurtzatzen dira munduko edozein parajetan. AEBetan langile etorkinek beroagatik hiltzeko hiru bider aukera gehiago dituzte hiritartasunaren jabe direnek baino. Eta Indian, non 30 urte barru 24 hiritan espero den udako batez besteko tenperatura 35°C-takoa izatea, txabolategietako biztanleak dira babesik gabeenak.

Planeta osoa ari da hiritartzen abiadura bizian -Munduko Osasun Erakundeak dio lurreko biztanleen %60 hirietan biziko dela 2030ean- eta hiriak arinago iristen dira tenperatura hilgarri horietara jendea sakabanatuago bizi den eskualdeak eta herriak baino. Gainera, hiria zenbat eta biztanlez trinkoago, orduan eta beroago.

Hiriek eguzkiaren beroa xurgatu, beren barnetik beroa sortu eta inguruan irradiatzen dute. Asfaltoak, adreiluak, hormigoiak eta teilatu ilunen belakiak ura legez biltzen dute beroa egunez, gauez inguruan barreiatzeko. Aire egokituak bizimodua konpontzen die hura ordaintzeko adina sos badaukatenei, baina ordaintan kaleak are gehiago berotzen dituzte hura pagatzeko ez daukaten kalterako.

Hiri bakoitzean beroaldiak bere kalteak ez ditu berdintasunez oparitzen, auzo aberats eta pobreak ezberdin baitaude hornituak. Zuhaitz eta landarek, hasteko. Arbola baten itzalak eragiten du tenperatura hamar edo hogeigradutaraino freskatzea. Eta hirietan jende txiroenak eta giza talde baztertuenak bizi dira landareen berdetik urrunen.

Aire egokiturik gabe ezin pentsatukoak dira XXI. mendeko hiriak, oreka energetikoari erreparatu gabe eraikitako etxe-orratzez diseinatuak. Egundak daukate aire egokiturik ez daukatenek, edukita ordaindu ezin dutenek, gaizki isolatutako presondegi edo ospitaleetan pilatuek, kalean bizi edo lan egitera derrigortuek...

Nola moldatu? Klase diferentziek ez daukate datozen urtetan arintzeko itxurarik eta oker diseinututako hiriak birmoldatzeko ez dirudi ez dirurik eta ez gogorik dagoenik. Teknologia berriz gainezka heldu den XXI. mendean, paradoxikoki, agintariak soluzio zaharretara jo beharra daukate eguzkiak herritarrek kiskali edo egostea nahi ez badute: gauez ixten diren parke, pizsina, liburutegi eta beste eraikin publikoak zabalik utzi, ura banatu auzoz auzo... ■

50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com


